

Ingeleseko hizkuntza gaitasunaren mailak ezaugarritzea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera (HEEEB)

Lehen Hezkuntzako 6.a

2017ko maiatza

2017ko martxoan eta apirilean Ingeleseko hizkuntza gaitasunaren ebaluazioa egin da Nafarroan, Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailan. Horretarako proba diagnostiko berariazkoa erabili da; proba horrek hizkuntzen ezagutzaren maila neurtzeko eskalak ditu eta erreferentziatzat hartzen du Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB), lehen mailetan (Aurre-A1, A1 baxua, A1, A2, B1 eta B1 altua) duela gutxi egin zen Hizkuntza Gaitasunaren Europar Azterlanean (HGEA) erabilitakoen antzekoak baitira. Europar Batasunak sustatu du <http://www.mecd.gob.es/inee/estudios/competencia-linguistica.html>).

Proba honi esker ebalua eta ezar daiteke ikasleek lortutako maila komunikazio-trebetasun bakoitzean: bi trebetasun hartzaile –irakurriaren ulermena eta ahozko ulermena– eta bi trebetasun ekoizle –idazmena eta mintzamina eta ahozko interakzioa.

Beraz, proba hori ez da egiten Lehen Hezkuntzaren bukaeran ikasleek duten ingelesaren curriculum maila neurtzeko. Halaber, ez da kontrola egin nahi ikastetxeetako programazioen edo curriculumen garapenaren gainean. Proba hau laginen azterketa baten barruan dago, Lehen Hezkuntza bukatutakoan lortutako ingeles maila hautemateko diseinatu baita; horretarako, erreferentzia gisa hartzen da HEEEBko mailetara egokitzea.

Lehen argudiatutakoaren ondorioz, trebetasun bakoitzaren banakako emaitzek, ematen direnek, ikastetxean ebaluatutako ingeles irakasgaiaren informazioa osatzen dute. Irakasleari dagokio aztertzea zein izan diren bere ikasleen emaitzak proba horretan, kontuan hartuta proba bakarra dela, ez etengabeko ebaluazioa, eta ez dituela bestelako alderdiak ebaluatzen, besteak beste jarrera. Beraz, komeni da lortutako emaitza dagokion kanpoko erreferentzia osagarritzat hartzea.

Interpretazioa errazteko, taula batzuk erantsi ditugu. Bertan ezaugarritzen dira ebaluatutako lau trebetasunetan lortutako oinarritzko mailak:

(1) Gaitasunaren mailak ezaugarritzea ingelesaren ahozko ulermenean (LISTENING).

Gaitasuna “Aurre-A1 / A1 / A2 / B1” mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

Listening A1	Listening A2	Listening B1
Haien buruari, haien familiari eta haien inguruneari buruzko oso hitz eta esaera oinarritzkoak, normalean erabiltzen direnak, ezagutzen dituzte, mantso eta argi hitz eginez gero.	Interes pertsonaleko gaiei buruzko esaldi eta hitz ohikoenak ulertzen dituzte (norberaren eta familiaren gaineko informazioa, oso oinarritzkoa, erosketez, bizitokiaz, lanaz). Ohar eta mezu labur, argi eta errazen ideia nagusia ulertzeko gai dira.	Argi eta normaltasunez hitz eginez gero, ideia nagusiak ulertzen dituzte eskolako, aisialdiko eta abarreko eguneroko gaiez aritzean. Gaur egungo gaiez eta interes pertsonal edo eskolako aferez ari diren irati edo telebistako saio askoren ideia nagusia ulertzen dute, mantso eta argi ahoskatzen dutenean.

(2) Gaitasunaren mailak ezaugarritzea ingelesaren idatziaren ulermenean (READING).

Gaitasuna "Aurre-A1 / A1 / A2 / B1" mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

Reading A1	Reading A2	Reading B1
Hitz eta izen ezagunak eta esaldi oso errazak ulertzen dituzte, errotulu, afixa eta katalogoetakoak, adibidez.	Oso testu labur eta errazak irakurtzeko gai dira. Badakite eguneroko izkribu errazetan, hala nola, iragarki, prospektu, menu eta ordutegietan, berariazko argibideak atzematen, aldeztu aurretik asmatzen ahal direnak, eta gutun pertsonal labur eta errazak ulertzen dituzte.	Eguneroko edo ikasketei loturiko hizkeran idatziriko testuak ulertzen dituzte. Gutun pertsonaletan adieraziriko gertaera, sentimendu eta nahien azalpena ulertzen dute.

(3) Gaitasunaren mailak ezaugarritzea ingelesaren idazmenean (WRITING).

Gaitasuna "Aurre-A1 / A1 baxua / A1/ A2 / B1 / B1 altua" mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

Writing A1	Writing A2	Writing B1
Postal labur eta errazak idazteko gai dira, adibidez zorionak adierazteko. Badakite datu pertsonalekin formularioak betetzen. Esate baterako, haien izena, haien nazionalitatea eta haien helbidea hotel bateko erregistroaren formularioan.	Haien berehalako beharren gaineko ohar eta mezu labur eta errazak idazteko gai dira. Gai dira gutun pertsonal oso errazak idazteko. Esate baterako, norbaiti zerbait eskertzeko.	Testu errazak eta ongi lotuak idazten ahal dituzte ezagutzen dituzten gaiak edo interes pertsonalekoei buruz. Esperientziak eta irudipenak azaltzen dituzten gutun pertsonalak idazten ahal dituzte.

(4) Gaitasunaren mailak ezaugarritzea ingelesaren mintzamenean (SPEAKING).

Gaitasuna "Aurre-A1 / A1 baxua / A1 / A2 / B1/ B1 altua" mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

	Speaking A1	Speaking A2	Speaking B1
Ahozko interakzioa	Elkarrizketetan modu errazean hartzen ahal dute parte, baldin eta beste pertsona prest badago gauzak berriro esateko edo beste hitz batzuekin esateko, mantsoago, eta esan nahi dutena adierazten laguntzen badie. Berehalako beharrei eta ohiko gaiak buruzko galdera errazak egin eta erantzuten dituzte.	Lan erraz eta arruntetan komunikatzeko gai dira, eguneroko jardura eta gaiak buruzko argibideak erraztasunez eta zuzenean trukatzuz. Harreman oso laburrak izateko gai dira, normalean elkarrizketa bat izateko adina ulertzen ez badute ere.	Hizkuntza hori hitz egiten den herrira joaten direnean gertatzen zaizkien ia egoera guztietan moldatzen badakite. Interes pertsonaleko eguneroko gaiak edo eguneroko bizitzarako egokiak diren gaiak buruz (hala nola, familia, zaletasunak, ikasketak, bidaiak eta ohiko gertaerak) elkarrizketa batean parte hartzen ahal dute naturaltasunez.
Mintzamena	Bizi diren tokia eta ezagutzen dituzten pertsonak deskribatzeko esatera eta esaldi errazak erabiltzen dituzte.	Haien familia eta beste pertsona batzuk, haien bizimodua, haien hezkuntza maila eta afizioak erraztasunez deskribatzeko esatera eta esaldiak erabiltzen dituzte.	Esaldiak erraztasunez lotzen badakite, esperientziak, gertaerak, ametsak, esperantzak eta nahiak azaltzeko. Badakite haien iritziak eta haien proiektuak laburki azaltzen eta justifikatzen. Istorio edo narrazio bat eta liburu edo film baten muina kontatzen badakite eta haien erreakzioak azaltzen ahal dituzte.